

• ASTERO GAIA •

Hondakindegia

Zer egin lur festa honekin?

Instituzioek esan dute ekonomiaren geldialdiari obra publiko gehiagorekin erantzungo diotela. Baina azpiegitura lan handiek milioika tona lur mugitzen dituzte urtero eta hondeatzaile elkarteak hasi dira larritzen, ez dago nahikoa toki materiala uzteko. Soluzio inteligenterik hartzen ez bada, ingurumena galtzaile atera liteke.

URKO APAOLAZA
Argazkiak: Dani Blanco



ERAIKUNTZA OBRA HANDIEK bi arazo dituzte: porlana egiteko harria nondik atera eta porlan horrentzako lekua egin beharra. Ondorioz, milioika tona lur mugitu behar izaten da alde batetik bestera, gure ingurua baskula erraldoi bihurtuz; kendu eta jarri, jarri eta kendu, ezinezkoa den orekaren bila. Joan den urteko urrian Azpeititik Zestoako Lasao auzora doan errepide batean sekulako luizia gertatu zen hondakindegia bat behera erori zenean. Zorionez, ezbeharrak ez zuen ondorio larriarik ekarri, baina lur mendi horren tamaina ikusgarria zen. Zer egiten zuen lur horrek guztiak errepidearen ondoan? Eraikuntza enpresa batena zen, Gipuzkoa osoan egiten ari zen obretatik sobratutako lurra biltzen aritu zen bertan. Azpeitiko Udalak espedientea ireki zion lizentzia kontuengatik eta luizia garbitzeko ere agindu zion enpresari. Honek arazo ugari izan zuen lurrarentzat beste kokaleku bat aurkitzeko eta “momentuz” Oriora eraman zuen materiala.

“Momentuz” hitzak material garbi edo inertearen auzi korapilatsua bistarazten du. Arazo bat konpondu nahian –superbideak sortzeko leku faltarena– beste bat sortzen zaigu, soberakinak uzteko tokirik ez egotea, alegia.

Lur inerteia, hondakindegia eta “beteketak”

Azpiegitura handietatik sobratzen den hondakina inerteia izan ohi da; ez da toxikoa eta ez du aldaketa fisiko edo kimikorik jasaten. EAEn bi modutan zabaldu daitezke material inerteaz osaturiko hondakindegia eta horietako bat da norbaitek zabaltzeko eskaera egin eta administrazioak baimena ematen dionean. “Baimena ematerakoan, ordea, hainbat irizpide hartzen dira kontuan, beti ere, uraren eta biodibertsitatearen inguruko araudia aintzat harturik” dio Begoña Iriarte Eusko Jaurlaritzako Ingurumenerako Kalitatearen zuzendariak. Hondakindegia horietan obra ezberdinetatik sobratutako materiala bota dezakete eragile pribatuek. Jakina, hondakindegia kontrol zehatzak pasa behar ditu. Zabortegi ingeniaritzan aritzen den Terra Nova enpresak horrelako kasuak aztertu izan ditu –Bizkaiko Garbitek bezalako erakundeentzat egiten du lan–. Bertako arduradun Alfonso Garcia de Cortazarrek azaldu duenez bi premisa bete behar dituzte: egonkortasuna eta iragazgaitasuna. Hain zuzen, hori ziurtatzeko lamina teknika berezia erabiltzen du Terra Novak.

Bada, baina, hondakindegia zabaltzeko beste modu bat, obra handiek –normalean garraio azpiegiturek– sortutako milioika tona lurri “irtenbidea” ematen diena. Eusko Jaurlaritzaren araudiak obra handietatik sobratzen den lurra biltzeko lekuei “beteketa” deitzen die.

5.000m³ lur baino gehiagorekin leku batean aldaketa morfologiko handia eragiten duenean jasotzen du kategoria hori hondakindegia. Tomas Morales EHUKo Geodinamika irakaslearen hitzetan, horrelako beteketa batek ez du babes berezirik izaten eta oinarrian iragazgaitasun neurririk ez zaio jartzen; horregatik, ezin da eraikinetako edo industriako hondakin bota, soilik lur eta harri garbia.

Bistan da hondakindegia eta eskoilera asko erregulatuta eta kontrolatuta daudela. Eta zer pasatzen da zainketa hori dutenekin? Eusko Jaurlaritzak badu ikuskaritza zerbitzu bat kontrolatu gabeko eskoilerak atzeman, jarduera eten arazi eta isunak jartzeko, baina askotan ez da erraza izaten horrelakorik egitea: “Egia da askotan urri gertatzen direla gure baliabideak eta ez gara nahi genukeen lekuetara iristen” dio Iriarte zuzendariak. Izan ere, jakina da erregulatuta gabeko eskoilera eta hondakindegia ugari dagoela bide bazter eta hiri inguruetan. Nafarroan, esaterako, 900 eskoilera ilegal baino gehiago zenbatu zituzten 2004an. Horrek guztiak zerikusia du hondakinak botatzeko leku faltarekin, hondakindegia urrunegi daudelako edo tasak ordaindu behar direlako.

Hondeatzaileen sektorea larrituta

Duela hilabete batzuk Bizkaiko Hondeatzaileen Elkarteak abisua jaurti zuen sektorearen egoera kritikoa. *Excave* bere aldizkari korporatiboko editoriala adierazgarria zen: “Arazo larria dago eskoilera edo hondakindegia faltarekin. Gaur egun gutxi daude eta daudenetako batzuk ixteko zorian gainera. Hondakina botatzeko punturaino dagoen distantzia oso handia da. Pentsatzen dugu beharrezkoak liratekeela hondakinak botatzeko 15 puntu gehiago, Bizkaia osoan sakabaturik”. Hain zuzen, elkarte berri bat sortu dute, Escombreras Vizcainas S.L. Erakunde berriaren helburua da sektore horretan aritzen diren enpresak hondakindegiz hornitzea eta administrazioarekin harremanak sendotzea arazoari konponbidea emateko.

Baina arazoa ez da konpontzeko erraza. Izan ere, etorkizunean gero eta lur soberakin gehiago egongo dela aurreikusten da, batez ere instituzioetatik ekonomiaren geldialdiari obra publikoarekin erantzungo diotela esan dutelako. Lakuak hitzarmena sinatu berri du diputazioekin inbertsioak aurreratzeko. Modu horretan, erakunde publikoetan gordeta zegoen dirua hainbat proiektutan gastatuko dute –eraikuntzan batez ere– eta zorretara jotzea ere ez dute baztertu arduradun politikoei. Guztira 12.805 milioi euro bideratuko dituzte 2012. urtera arte, horietatik 1.100 lehenagotik aurreztuta zeuden. Aldiz, Nafarroako Foru Gobernuak iragarri duenez joera izango da krisia datorrenera

[Lur soberakinen arazoa larritu egin daiteke eta administrazioak ez du ukatu: “Ez dago beharra bategi batean aiseko duen soluziobiderik”](#)



ko aurrezte; momentuz aurrekontuen 150 milioi euro izoztu egin ditu Sanzen exekutiboak. Dena dela, eraikuntzako patronalak administrazioari eskatu dio autobia zaharren konponketari ekiteko eta asko dira Nafarroan obra zibila “aktibatze” eskatu duten ahotsak.

Horrekin guztiarekin garbi dago obra publiko izango dela ekonomiaren motore, eta dezelatzeak etxebizitzaren eraikuntza pribatuari eragin dion arren, azpiegitura erraldoiek lur mugimendu handia sortuko dute datozen urteetan. Gero eta gehiago egiten dira garraiobideak lur azpitik –begi-inpaktua gutxitzen delako eta geoteknikan hobetu delako–, Abiadura Handiko Trenbidearen ehuneko handi bat tunelak izango omen dira (104 km) eta euskal “Y”aren proiektuak aurreikusten du 16 milioi m³ lur soberan izango dela. Zer egin, orduan, lur horrekin?

Alternatiba bila

Agerikoa da hondakinaren hierarkian azpiegitura egitasmoek ahalik eta lur soberakin gutxien sortzeak duela lehentasuna; baina hortik aurrera alternatiba egokia bilatu behar zaio lurrari. Makroproiektuek instituzioen babesak dute eta derrigorrean aterabidea eman behar diote arazoari: “Obra publiko batzuetan Diputazioak har-

Lehenengo orrian Donostiako bigarren gerrikoaren obrak; goian, hondakindegia Hernanin. Hondeatzaileen sektoreak ekonomiaren krisia eta eraikuntzaren geldialdia nabaritu du Espainian, baina obra zibilaren eskaintzak on egingo dio. Bere jardunaren %19 azpiegitura publikoak dira, eta Bartzelonako merkataritza ganberaren arabera, hamar puntu igo daiteke administrazioek agindutakoa inbertitzen badute.

tzen du ardura hori –hondakinak botatzeko lekua bilatzea–. Adibidez, Supersurren kasuan administrazio publikoak kudeatu du gaia eta arazoa bizkor konpondu nahi izan du” dio Terra Novako Garcia de Cortazarrek. Aldiz, obra txikiagoetako hondakinez desegiteko arazo gehiago dago, kasu horietan ez dago adostasunik eta hondeatzaile bakoitzak atera behar ditu babarrunak eltzetik. Beraz, Bizkaiko hondeatzaileek salatu duten moduan, lur soberakinen arazoa areagotu egin daiteke epe laburrean, eta administrazioak ez du horrelakorik ukatu gainera: “Beharra handiegia da eta ez dago bat-batean aseko duen soluziobiderik” onartu du Iriartek.

Harrobi zaharren errestituzioa da gehien aipatzen den aukera. Harrobien ustiaketak zulo izugarriak utzi ditu gure mendi magaletan. Esplotazioek mendia soildu dute, kutsatu eta desitxuratu; orain, horietako batzuk berreskuratzeke prozesuan daude –Eusko Jaurlaritzak 28 eskaera jaso ditu–. Zestoan, adibidez, Osinbeltz harrobi erraldoiaren zuloa A-8ko obrek inbertitzen proposamena egin dute. Asmo berdina dago Arrasaten, San Josepe harrobian 1,2 milioi m³ lurrentzako tokia baitago. Harrobietan materiala uzteagatik tarifa bat kobratu eta ingurua berreskuratzeke kapitala lortu liteke promotio-

Undiano: bi mila Sadar hondakindegia batean

Erreniegako Undiano herrixkan –Cendea de Zizur udalerrian–, 29 milioi m³-ko hondakindegia egin nahi du Nafarroako REAM (Recuperación Ambiental) enpresak. Horrek esan nahi du leku horretan bi mila Sadar futbol zelaien hondakinak sartuko lirakeela – estadioa eraiki zutenean 14.000 m³ hormigoi erabili zuten–.

Hondakindegia AHTaren eta Gendulaingo urbanizazio proiektuaren

hondakin inerteak jasoko lituzke, bertatik pasatzen den erreka estaliz eta babesturiko hainbat animalia-aren pasabidea oztopatuz. Undianotik 250 metrora besterik ez litzateke egongo eta egunean 300 kamioi pasako lirake ondoan dagoen Astrain herritik.

Herritarren protesta

Bizilagunak oso kezkatuta daude, luitzak egon daitezkeelako eta honda-

kindegia hauts handia zabal deza-keelako airean, besteak beste. Hondakindegia-aren kontrako ekimenak eta protestak ugari izan dira azkene-ko urte eta erdian.

Undianoko kontzejua proiektuaren aurka azaldu da behin eta berriz, baita Cendea de Zizurreko Herrien Batzarra ere. Oposizio horren aurrean aukera gehiago aztertuko dituela azaldu du REAM enpresak.

reen esanetan. Baina aukera horrek baditu arrisku eta oztopo bana: arriskua da handikeria arkitonikoetan edo espekulazioan erortzea mendia berreskuratu beharrean, atzerrian gertatu izan den bezala –Ingalaterran, kasu–. Oztopoa, aldiz, gaitzagoa da: harrobiak obra zibilak egiten diren lekutik distantzia handira daude eta horrek kostuak handitu, bizilagunentzako enbarazuak sortu eta kutsadura areagotu lezake. Bestalde, ondo begiratu behar da harrobietara eramanda-ko lurra garbia ote den, sistema hidrologikoan ez eragiteko: “Euskal Herriko harrobi gehienak kareharrizko mendiei loturik daude eta akuiferoak osatzen dituzte, iturburu eta hutsune naturalekin –dio Morales irakasleak–; horregatik, uraren kalitatea eta segurtasuna kontrolatu behar da”.

Interes bikoitza duten irtenbide gehiago ere bilatu da lur soberakinarentzat. Ezaguna da Deustuko kanalaren kasua, 25.000 metro koadroko kanala lurrez bete nahi du Bilboko Udalak –ondoren 900 etxebizitza egiteko– eta bizilagunen oposizioak eztabaida bizia sortu du hiri horretan. Baina datu garrantzitsu bat eztabaida horretatik aparte geratu da: Supersurraren obrek sortutako hondakin guztiak bertara botako dituztela, eta seguruenen oraindik lekua geratuko dela hondakin gehiagorentzat. Hain zuzen, Escombreras Vizcaínas S.L.-k kanal horretan du jarrita begia.

64 eskoilera AHTarentzat EAEn


AHTaren tunel kilometro bakoitzetik 200.000 metro kubo lur aterako dira. Madrilgo Sustapen Ministerioak egindako txostenak dio euskal “Y” trazatua egiteko eskoilera edo hondakindegiek 518 hektarea okupatuko dituztela –ia trazatuak berak bezain beste–. Guztira 64 hondakindegia izango dira, 3 eta 24 hektarea artekoak. Eusko Jaurlaritzak hondakindegia horiek “ingurune natural” gisa kontsi-

deratzen ditu, lur garbiz osatuak daudelako. Horrela, Lopez de Guereñu Garraio sailburua- ren hitzetan, eskoilerak nekazaritzarako berrera- biltzea aztertzen ari dira.

Baina zer puntura arte berreskuratu daiteke hondakindegia bat? Galiziako AVEaren kasua esanguratsua da. Santiago-Ourense ibilbiderako 425 milioi euro gastatuko dituzte ingurugiroari egindako kaltea gutxitzeko –aurrekontuaren laurdena– eta horretarako 41 lur “biltegi” eraiki dituela azaldu du Adif-ek –Estatuko trenbideen administratzailea– eufemismo handiz. Hain zuzen, zati horren erdian dagoen Lalin herri- kontseiluan AVEak alegazio mordoa jaso du hondakindegia nekazaritzarako lur emankorre- netan jarri dituztelako; eskoilerak, zenbait kasu- tan “30 metro baino gehiagoko altuera” dutela salatu du nekazaritza zinegotziak eta ezin izango direla “inolaz ere” paisaiari lotu.

Euskal Herrian jadanik esleitu dituzte AHTa- ren hainbat obra. Gipuzkoan, Itsasondo-Ordizia zatia izango da lehenengoa egiten eta eremu horretan 700.000 m³ lur mugituko dute bere lekutik. Beasaingo Erauskin auzora eramango dute soberakin gehiena, ibar batean 300.000 m³-ko hondakindegia jartzekotan baitira. Zenbait kalkuluren arabera herri horretan kamioiek 57.000 joan etorri egingo dituzte eta Beasaingo Udalak hondakindegia beste leku batean koka- tzeko eskatu du, trafiko astu- nak eragindako kalteak eta zikinkeria oso handia izango direlako herrigunean.

Baina kamioiek sortutako hautsaz gain, hondakinde- giek kalte gehiago eragin dezakete. Esther Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Inguru- men sailburuak legebiltzarki- de baten galderari erantzunez esan berri du harrobiak berrera- biltzea aztertzen ari direla “materiala ibarbidее-



AHTak eragindako lur soberakinak



Makina hondeatzaileak lurra mugitzen Donostia inguruan. "Ikerketa geoteknikoak ezinbesteko dira hondakindegia- ren eta hegale- n egonkortasuna ziurtatzeko. Batzuetan azterketa eskasa izaten da, inguruan arriskua sortuz" dio Tomas Morales EHUKO irakasleak.

tan utzi eta ur-jabari publikoari eragitea ekidite- ko". Hortaz, hondakindegiek sistema hidrauli- koari eragin diezaiokete. Tomas Moralesek azal- du duenez hondakindegia obra inguruetan jartzen saiatzen dira garrarioa gutxitzeko, eta askotan ez da leku egokiena izaten: "Beteketak ibarretan jartzen dituzte, normalean ibarburue- tan, eta errekari nabarmen erasaten diote" dio irakasleak.


Hondakindegi handiena errepide azpian

Obra handietan mugitutako lurak ez du, legez, hondakin izaerarik azpiegiturak egiteko berrerabil- tzen bada –errepide baten oinarrian jarrita, eta abar–. Europako hainbat herrialdetan lurra- ren birziklapen tasa oso altua da eta hondakin- degi handienak "errepide azpian" daudela diote; baina ez da soilik obretako lur garbia berrerabil- tzen, etxeen eraisketatik sortutakoa ere bai. Egiaz, Danimarka eta Holanda bezalako herrie- tan debekatua dago berrerabil daitekeen ezer hondakindegira botatzea eta hori egiteagatik ezarritako zergak gero eta astunagoak dira. Baina hori harri eskasatik sortutako logika da, nahiz eta, bide batez, ingurumenari kalte gutxia- go egiten zaion.

Dena dela, ezinbestekoa da lurriari "irtenbi- dea" eman beharrean, lurrik mugitu behar ez izateko politika sortzea, inguruarentzat hobea, osasuntsuagoa eta inteligenteagoa delako. ■

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia

"Kirolaz badakit" mahai-jolasa

"888 txiste" liburua

"Txoriak txori" lamina

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

